

**JARRAIBIDEAK:** Ikasleak proposatzen diren A eta B aukeretako baten galdera guztiak erantzun behar ditu. Galdera bakoitzean adierazten da gehienezko puntuazioa zein den.


### A aukera

**1. zatia: DEFINITU TERMINO HAUEK (Gehienez: 3 puntu)**

*a) Erromatarren aurreko herriak; b) Iruñeko erresuma; c) Inkisizioko auzitegia; d) Moriskoen kanporaketa; e) Espainiako Ondorengotza Gerra.*

**2. zatia: GRAFIKOA: Trenbide sarearen luzera (kilometrotan)**

Trenbide sarearen luzera (kilometrotan)



ITURRIA: CORDERO Y MENÉNDEZ, 1978

**GALDERAK (Gehienez: 3,5 puntu)**

- a) Grafikoaren deskribapena (Gehienez: puntu 1)
- b) Grafikoaren interpretazioa (Gehienez: 2,5 puntu)

**3. zatia: SINTESIA (Gehienez: 3,5 puntu)**

*1931ko Konstituzioa eta biurteko erreformista.*

**JARRAIBIDEAK:** Ikasleak proposatzen diren A eta B aukeretako baten galdera guztiak erantzun behar ditu. Galdera bakoitzean adierazten da gehienezko puntuazioa zein den.

## B aukera

**1. zatia: DEFINITU TERMINO HAUEK (Gehienez: 3 puntu)**

a) *Erromatar probintziak*; b) *Kordobako kalifatua*; c) *Kontratazio Etxea*; d) *Nafarroako Erresumaren Diputazioa* e) *Merkantilismoa*.

**2. zatia: TESTU HISTORIKOA: Joaquín Costa eta auzi soziala**

“Pronunziamenduekin, manifestuekin, iraultzekin (...), erregimen eta dinastiak aldatzen, Konstituzioak aldarrikatzen (...) mende erdia baino gehiago eman ondoren, badaukagu eskatutakoa, konstituzio liberala, (...), sufragio unibertsala, norberaren eskubideak, eta, hala ere, lehengo horretan segitzen dugu: herria negarrez lehen bezalako morrontzan, (...) bere zoritxarra ez da txintik ere aldatu, (...).

Eta badakizue zergatik? Askatasun hori “Gacetan” idatzi besterik ez baitzuten egin, (...) ez zirelako erne ibili hori finkatzen, eta burmuinean eta urdailean gorpuztu eta errotzen; burmuinean, irakaskuntza hobetuz eta orokortuz; urdailean, nekazaritzaren eraldaketa sakona sustatuz, orain ekoizten dena bikoizteko eta elikagaien salneurria merkeagotzeko, eta lurraldearen jabetza hedatuz, eta halatan jornalariak lur-jabe bihurtuz. (...) Ez zuten ikusi, garbantzurik gabe, askatasuna ez dela askatasuna. Ez zuten ikusi, konstituzio guztien eta norberaren askatasun guztien gainerik (...), urdailaren giltza duenak kontzientziaren giltza ere baduela, eta, horrenbestez, urdaila betetzeko besteren jakitokien beharra daukanak ezin dela nahi duen lekura joan, ezin duela nahi duena egin, ezin duela nahi duen bezala pentsatu, ezin diola berak nahi duenari boto eman hauteskunde egunean; ez zuten hausnartu ez dakiena ikusten ez duena bezalakoa dela, eta Lazarillok eraman behar duela ikusten ez duen hori Lazarillok eraman nahi duen tokira, nekez izaten dela itsuari komeni zaion tokia, ia beti itsumutilari komeni zaion tokia izaten dela, (...) eta iraultzak ez zuen fruiturik eman ahal izan; antzu gelditu zen”.

COSTA, Joaquín: *La tierra y la cuestión social*. Madril, 1912.

**GALDERAK (Gehienez: 3,5 puntu)**

- Kokatu testua bere testuinguru historikoan (Gehienez: puntu 1).
- Esan Costak testuan Errestaurazioaren erregimenari egiten dizkion hiru kritika (Gehienez: 2,5 puntu)

**3. zatia: SINTEZIA (Gehienez: 3,5 puntu)**

1808ko krisia: Independentzia Gerra eta iraultza politikoa. *Cadizeko Gorteak eta 1812ko Konstituzioa*.